



Euskadiko Film Laburrak
Selección de Cortometrajes Vascos
Selection of Basque Short Films

KIMUAK 2018 AUKERAKETAKO FILM LABURREN LEHEN EMANALDI PUBLIKOA

Datorren osteguna 28an, arratsaldeko 19:00etan, Kimuak 2018 aukeraketa osatzen duten film laburren emanaldia egingo da Donostiako Tabakaleran, Euskadiko Filmategiak eta Tabakalerak antolatuta.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak Etxepare Euskal Institutuaren bitartez eta Euskadiko Filmategia Fundazioaren laguntzarekin antolatutako Kimuak programak, euskal film laburren sustapena eta banaketa du helburu. Azkeneko katalogo honetan jasotako lanak honakoak dira: Maddi Barberren 592 METROZ GOITI, Josu Martinezen AMA, Maria Elorzaren ANCORA LUCCIOLE, Iban del Camporen ESPEDIZIO HANDIA, Miguel Ángel Jiménezzen KAFENIO KASTELLO, Sara Fantovaren NO ME DESPERTÉIS eta Pello Gutiérrezzen ZAIN.

Film labur sorta honek pasa den Donostia Zinemaldian hasi zuen ibilbidea, eta orduz geroztik 109 aukeraketa eta 13 sari eskuratu ditu guztira. Rotterdam, ZINEBI, Euskal Zine Bilera, SEMINCI, ALCINE, Visions du Réel, ABYCINE, Bogoshorts, Porto/Post/Doc eta Aguilar de Campoo bezalako jaialdietan parte hartu ostean, osteguneko publiko zabalari zuzendutako lehen proiektzioa izango da eta egileak bertan izango dira beraien lanak aurkezten.

Emanaldirako sarrerak salgai daude jada Tabakalerako InfoPuntuan eta Kutxabank webgunean.